# ALADIÑO

Marrazkiak: Txiki de la Fuente
Erdal-itzak: Carlos A. Cornejo
Euskal-itzak: Nemesio Etxaniz
Jesus Gaztañaga



ETOR BIDEAN KVLTVRA

FOLL-LE-3-(C-4)

Euskal Biblioteka Labayru

1022424
Literatura-12/(272.libx.)
Liburuxkak

KiRiKiÑo
EUSKAL KUTXA
GALERIA VASCA
Colón de Larreátegui, 11
(Galerías Bilbao)
Urrut. 424 11 74 Teléf.
BILBAO-1

O. H. O.-ko Erdiko Zikloa



# ALADIÑO

Marrazkiak: Txiki de la Fuente
Erdal-itzak: Carlos A. Cornejo
Euskal-itzak: Nemesio Etxaniz
Jesus Gaztañaga

KULTUR EKINTZA

ETORBIDEAN KVLTVRA

ERRIBIDE ZABALKUNDEA

© José Luis de la Fuente 1975
DERECHOS MUNDIALES RESERVADOS

© Euskal argitalpena ETOR
Marrazkiak: Chiqui
Erdal-itzak: Carlos Alberto Cornejo
Kreatibo: Marco Antonio Katalinic
Euskal-itzak: Nemesio Etxaniz eta
Jesus Gaztañaga
Margoak: Fotolitos ERNIO, S. L.
I. S. B. N.: 84-400-8905-8
Depósito Legal: S. S. 460-1975
Imprimatzaillea: Gráficas Elurra
Gral. Mola, 53 - Pasajes San Pedro (Guipúzcoa)
Argitaratzaillea: Juan Jose Garmendia Arzelus


ANTZIÑA, OSO ANTZIÑA... SORTALDE URRUTIKO ERRI BATEAN; EGUZKIAK ERRETAKO LURRALDE BATEAN, AUR BATZUK, (ZUEK GAUR BEZELA) BIRLA-JOKOAN ARI ZIRAN. ONTAN...
BAT, BI, IRU... JAN DIAT JOKOA!
AUR ALUOK!
BIRLA OIEK NERE BOTILLEN ESTALKIAK DIRA!
EGON, EGON! NIK...
JO, JO!... ORREGATIK ZEUZKAN GAUR AJMED'EK ONENBESTE BIRLA! AITARI ARRAPATUAK ZITUAN!
BA-DU JIPOI EDERRA!
BAIÑA AJMED AUNDI EGITEN DANEAN, BERE AITAK LEIAR-GINTZA ERAKUTSIKO DIO. ETA NERI... NORK ERAKUTSIKO LANGINTZA BAT?
ALADIÑO ¡BAI EDERKI BIZI AIZELA! AITARIK EZ DAUKAK ETA AMAK EZ DIK JIPOIRIK EMATEN.
ALA DA! NI, NAI DUDAN ORDURA ARTE JOLASTU NAITEKE.
AL. 1


NERE LAGUNENTZAT, BERAUEN GURASO-AK ZIGORTZAILLE BESTERIK EZ DIRA.
AI, AI, AI ¡... BARKATU! ERRUKI!
BAIÑA AITAK, AMARI LAGUNTZEN ERE BA-DAKI. ETA SEME-ALABAR-EN LAGUNA DA.
AITAK BERE BABESA ERE ESKEIN-TZEN DIK.
ORRA OR GIZA-TXAR BAT.
IK... BEARKO DUK BABESA.
BEGIRA GERRIKO LUZEDUN MUTIKO ORI. ORIXE DA ALA-DIÑO! ESAN ZIDA-TEN BEZELA-KOXEA!


ALADIÑO
NERE ILLOBA MAITE ORI! O,O,O! AURKITU AUT, NOIZBAIT!
COPYRIGHT 1975 Chiqui
OGEI URTE IBILLI NAUK IRE BILLA. NERE ANAI ZEN IRE AITAK, ESAN ERE, ESATEN ZIDANA...
NERE BILLA OGEI URTE?... NOLA DA ORI? NIK AMASEI URTE DAUZKAT
BEGIRA, NOLAKO ALEGIÑAK I BILLATZEKO.
ZU BELTZA TA NI ZURIA IZANIK, NOLATAN ZU NERE OSABA?
ILLOBATXO! I BILLATU EZIÑAK BEZTU ZIDAK AZALA.
BAIÑA, ORRA BIOK ALKARREKIN. ORAIN BETEKO DIAT IRE AITARI EMANDAKO ITZA
LANGINTZA BAT ERAKUTSIKO AL DIDAZU?
BAI OBERIK ERE! AURREAN DITUGUN GAUZA ZORAGARRIAK ERAKUTSIKO DIZKIAT
AURREAN? BASAMORTU GORRIA BESTERIK ETZEGON AURREAN. ONDAR GORRIA BAKARRIK.
AL 2


ERAZTUN AU EZ DAUKANARENTZAT BAKARR-IK ZEOK UTSIK BASAMORTUA. SARTU EZAK BEATZEAN ETA IKUSIKO DITUK IKUSTEKOAK.
GERTA BITEZ ARRIGARR-IAK!
OGEITA AMAR URTE, UNE ONEN ZAI BIZI IZAN NAUK. I BAKARRIK, SARTU INDEKE ZULO ORTAN. IK BAKARRIK ATERA EZAIDAKEK, LEIZETIK KRISAI-LLUA.
EZ AL DUT OKERRIK IZANGO?
JOAN ADI, IRE OSABAGATIK ETA AITA ZANAR-EN OROITZA-GATIK!


EZ BELDURTU. EMEN EGONGO NAUK NI, I ZAINTZEKO.
ZAINTZEKO... LEIZETIK BEIÑERE IRTEN EZ ADIN! KRISAILLU MIRARITSUA IRE ESKUETAN UZTEKO, EZ NAUK BERROGEI URTEAN ALPERRIK IKASTEN IBILLI. JA, JA... I EZ AIZ NERE ILLOBA. EZTA IZATERIK MEREZI ERE!
IKUTUTXO BAT NAIKOA IZANGO DU... IRTERAN, ETA ARKAITZ AUEK GAIÑEAN IZANGO DITU. JE, JE!
BAI LUZATZEN DUALA ZULO ORTAKO EGONALDIA! ZERTAN ARI OTE DA?
TXIKI, ARKITU AL DUK?
AL 4




SASI-OSABAREN DEADARRAK, EGUNDOKO ARKAITZ-EURIA SORTU ZUAN BURU-GAIÑERA.


LEIZE-ZULOKO IRTEERA, ITXITA GELDITU DA. ETA 60 URTEKO BILLAKETAK PIKUTARA JOAN DIRA.
LEIZE-BARRUAN, ARKAITZ-EURIAK ZULOAREN ONDORAIÑO ERAMAN ZUAN ALADIÑO.
AAAA!!
SALBATUA NAIZ!
ETA NOLA IRTENGO NAIZ NI EMENDIK?
AU DA EZ-BEARRA. OSABA AURKITZEAZ AIN POZIK NENGON ETA... ORAIN EMEN ZULOAN ITXITA.
LARRIUNE ARETAN, MALKOAK ATERA ZITZAIZKION.
ERAZTUNA IGURTZI ORDUKO... ARA!!!
ERRASTUNAREN AZTIGOIA NAIZ. ZER ESKATU NAI DIDAZU, MUTIKO?
AL 6


BESTE EGOERA BATEAN IZAN BA'LITZ, AMAIKA GAUZA ESKATUKO ZITUAN; BAIÑA LARRIGUNE ARETAN... AUXE ESAN ZUAN:
AMA IKUSI NAI DUT.!
OR DUZU!
ALADIÑO! EGUN OSOAN NUN EGON ZERA?
OI!... SINISTU EZIÑEKOA GERTATU ZAIT: AITZULO BATEAN SARTU TA KRISAILLU AU ARKITU DUT, ETA...
TA ORI AL DA EKARRI DUZUN GUZIA? JANA EKARTZEKO ESAN ETA KRISAILLUA EKARRI. ORREN OLIDA JAN BEAR AL DIAGU? JATORDU EDERRA EGINGO DIAGU ORRENBESTEKIN!
AU SEMEA, AU! BERE AMA GAJOARI JANA EKARTZEKO ESATEA GEIEGI ESKATZEA OTE DA?
GARBITURIK DIZ-DIZKA JARRI TA... GARESTI SALDUKO BANU?
ZURE SERBITZARI TA MORROI NAUZU. ESKATU ALA EMANGO DIZUT.
ARKUME ERREA TA GAZTAIÑAK, KRIS-KRAS JATEKO DAUKADAN GOGOAREKIN!
OOO!
AL 7


UDARE TA MARR-UBIAK, PERTZAKA ESNE TA EZTIA...
EDOZER GAUZA, BENETAN EMANGO AL ZENIDAKE?
ESKATU TA IKUSIKO DEK.
ORTAN BA'GERA... BETE EZAZU NERE AMAREN GOGOA! EKARRI NERE AMARENTZAT ERREGIN SOIÑEKORIK EDERRENAK!
ORRA OR GUZTIA!
AZTIGOI IZKUTATU ZAN ETA AREN LEKUAN...
AMA! AMA! BEGIRA!
AU DA BAZKARIA! ERREGE-MAIA DIRUDI!
ORI DANA MEREZI DUZU, AMA. TA JANTZI AU ERE BAI.
OI, ENE, SEME! NUNDIK INGURATU DITUK? EZ ITUAN, BA, LAPURTUKO? NI JOSKIÑAREN ALARGUNA NAUK ETA JANTZI AUEN BALIOA ONDO ZEKIAT GERO...
ALADIÑO, DENEN GAIÑETIK, IKASI ESKU GARBIKO IZATEN!
ZAUDE, AMA, GAUZA ESAN ARTE...EZ DITUT LAPURTU. BENETAN!
AL 8


KANPOTIK BEGIRATU-TA, ARGI ONTZI ZAAR BAT BESTERIK EZ DU DIRUDI. NUN DU KRISAILLU ONEK, AZTI ARRIGARRI ORI GORDETZEKO LEKURIK?
AZTIGOI! AZTI-GOI! IRTEN ORTIK! NERE BIZIAN GEIEN NAI IZAN DUDANA, ESKATUKO DUT.
ZURE MIRABE TA MORROIA NAUZU. ESKAIDAZU TA EMANGO DIZUT.
LANGINTZA BAT ERAKU-TSIKO DIDAN AITA BAT NAI DUT.
OI, NERE ZORI-TXARRA! EDO-ZER GAUZA EKARRIKO DIZUT; BAITA MIRARIAK EGIN ERE, BAIÑA GIZONIK EZIN SORTU DEZAKET...
LANGINTZA, BERRIZ, ZER-ORREK IKASI BEARKO DUZU.
ORI ESANDA, AZTIGOIA AIZE BIURTU ZAN.
ALDE GUZTIOK! BELDRAMINA ERRE-GIN-GAIA DOANEAN, EZ DU IÑUNGO GIZONEK IKUSI BEAR!


ALDE, USTELOK!
KIRTEN ALAKOAK!
OI!... ERREGIN-GAIA IKUSTEAREN TRUKE, BI BEGIOK EMANGO NITUZKE! AIN EDERRA OMEN DA!
AZKAR, BIZKOR! ZER MIRARI BEAR OTE DUT, EDER ORI IKUSTEKO?
ERREGIN-GAIAK BUSTIALDIA ARTZEKO AUKERATUA DAUKAN LEKUA, ORMA AUNDIZ INGURATUA DAGO.
!?
ASMATU DIAT! KRISAILLUKO AZTIGOIAK LAGUNDUKO ZIDAK, NERE GOGOA BETETZEN.
FLOP!
Chiqui
LEIARREZKO ESKILLARA AU, ZUK BESTE IÑORK EZINGO DU EZ IKUSI ETA EZ ERABILLI.
INGURU AUETAN, EZ DAGO LEKUKORIK... EZ IXPIRIK.
ASKOZ OBE!... BESTELA IKARATU EGINGO LIRAKE, AIDEAN NABILLELAKOAN.



ALADIÑO'REN ITZAK, ALAXE GERTATU ZIRAN. AÑ ZEGOEN IXPI BAT ZELETAN ETA IKUSTEN ZUANA EZIN SINISTURIK.
ZER IKUSTEN DUT, BAIÑA? OOOO!!
OINPEKO SORGIÑIK GABE... SOKA LILLURATURIK GABE... AZTI-TXIRULARIK GABE... AIDEAN GORA DOA MUTIKO ORI.
AU BAI DALA AZTIKERI TA SORGINKERI GALANTA!
AL. 10.B


EDERTO! ZELETARIA ERE BEGI-AK ISTERA BEARTU DUTE. ORREK ERE EZ NAU IKUSIKO.
ERREGIN-GAIA... NUN DA?
UUUU... BAI URRUTI DAGO-LA!
BEGIAK, ZORROZTU BEAR...
OOOO! ZO...RA... GARRIA DA!
ALADIÑO'K BERE AMA IZAN EZIK ORDURARTE ETZUAN ARPEGIA ES-TALI GABEKO EMAKUMERIK IKUSI.
UIIII!!! ITXU-ITXUAN, MAITEMINDU EGIN NAUK!... EMAKUME ORREK ZORATU NAU.
TA MAITASUNAK, JAKIÑA, GAZTERIK BIKAIÑENARI IRRIST ERAGITEN DIO.
Oiiii!
AZTIGOI!... AZTIGOI!!!
AL 11


EKARRI NERI SOIÑEKORIK BIKAIÑENAK. ERREGE-ARI BERE ALABAREN ESKUA ESKATU BEAR DIOT.
BEREALAXE, JAUNA!
NAGUSI! ERREGE-GAI DIRUDIZU, BAIÑA ETZERA ERREGE-GAI... ZURE BIZIA ARRISKUAN EZ OTE DUZU JARRIKO?
BIZIA? ZEIÑEN BIZIA?...
ONDAR-GAIÑEAN ZIJOAN, BAIÑA MAITEAR-ENGANA ZERAMAN BIDEA, AIDE TA LAIÑOZ ZA-LA IRUDITZEN ZITZAION ALADIÑO SORGINDUARI.
ORI DUK ARROPUTZA!... ORRELA-KO SOIÑEKO DIZDIRATSUAK, EGUZ-KITARA ATERATZEA, DEBEKATU EGIN BEAR LITZAKE. ITXUTU EGITEN NAU!
OI! NERE BE-GIOK!
AZKAR!... ESAN SULTANARI, EMEN DA-GOLA ALADIÑO. ALABAR-EN ESKUA ESKATZER-A NATORRELA!
JOSTUNAREN SEME TXATXU ORI, ERREGIN-GAIA EMAZTETZAT ESKATZERA... GEIEGI DA! LOTSAGABE AUNDIA!
AL. 12


AUSARTIA BEAR DA ONTARAKO! JOSKIN BATEN SEMEA IZATEKO, JANTZI OSO DOTOREA EKARRI DUZU. BAIÑA, SULTANA'RENGANA ESKU-ERAKUTSIRIK GABE ETORTZEA EZ AL DAKIZU LOTSAGABEKERI IZUGARRIA DALA?
EZKONGAI ARRIGARRIA BENETAN! ERREGE-GAI TXATXUA! KRISAILLU ZAAR ORREKIN BERRIKETAN ARI DALA, ESANGO NIKEK!
BSSS... BSS... BSS...
AI JAUNA! GAUZA BAT ESATEA AAZTU ZAIT...
NERE ESKU-ERAKUTSIA, BARRURA EZIN SARTURIK, ATARIAN UTZI DUT.
JEIKI ADI, KANKAILLU! NI EZ NAUK, ERREGE-GAI ARROTZA. ALADIÑO'REN MIRABE TA JOPU NAUK, BESTERIK EZ!
AL 13


OIEK DIRA ALTXORRAK!... BERE AITA JOSKIÑAK, SEME AU AIN ABERA-TSA UZTEKO, SOIÑEKO BAKOI-TZENGATIK, ZENBAT DIRU KENTZEN OTE ZUAN?
BSS... BSS... BSS...
EGUNDOKOAK DITUK IRE ESKU-ERAKUTSIAK ETA ESKERRIK ASKO, BAIÑA BERANDU ATOR... NERE ALABAREN ESKUA, BESTE BATI ESKEÑIA ZEOK...
EMEN AURREAN DUGUN VISIR AUNDIAREN SEME-ARI, NOSKI
BAI, ALA DA.
NERE SEMEAREN EZTAITAR-TALDEA BI-DEAN DATOR: ARA AN! ETA ONERA IRITXI ORDU-KO, EGIÑA DAGO EZKONTZA.
MIN DUT, ALADIÑO BESTE ALABARIK IZATEAN ADIERAZIKO DIZUT.
NEREAK EGIN DUALA! KITO!
AL 14.


AIZU! KRISAILLUA AAZTU ZAIZU!...
ZERTARAKO DUT, BA, NIK KRISAILLU ORI?... EZTAITARRAK URI ONTAKO ORMATARA IRITXI BEZAIN LASTER, NERE MAITASUNAK JAI DU BETIKO. AKABO NERE MAITEA!
TOK!
TOK!
AZTIGOI, KRISAILLU BARRUTIK DEIKA. BERA DALA! BAIETZ!
BARKA ALADIÑO, ZURE GAUZETAN ZARTZEN BA'NAIZ. EZTAITARRAK ETORTZEAN, ORDUAN IZANGO DA EZKONTZA. EZ AL DA ALA?
OR ZEGOK, BA KOXKA!... ETA EZTAITARRAK IRISTEN EZ BA'DIRA?
BITARTEAN ANDIK URRUTI GABE...
JAUNA, AN URRUTIAN, AGIRI DA URIA... OKER EZ BA'NAGO, GAUR GAUERAKO AN GERA.
GOAZEN BA, AZKARRAGO!
BITARTEAN JAUREGIAN...
AN DATOZ... OKER EZ BA'NAGO, GAUR GAUERAKO EMEN DIRA.
BETOZ, BA, LEN-BAILEN!
AL 15


ZER DITUK IRE ASMOAK, AZTI BIURRI ?...
UTSA ! EZER EZ ...
TARTE SORGINDUAZ INGURATUKO DUGU URIA !
ZER DALA-TA NAKARREK ORAIN VISIR AUNDIAREN SEMEARENGANA?
EZ BELDURTU. AIEN BEGIETARAKO IKUS-EZIÑAK GERA-TA.
BESTE ESI BAT GEIAGO? BASAMORTUA ZULOZ BETE NAI AL DUK?
EGON PATXARAN, NERE JAUN ORI !
ZAUDE, ZAUDE! ORAIN IKUSIKO DUZU!
ERREGE-ETXERA ITZULITA, ALADIÑO'K GAU OSOA BERE AMESETAKO ERREGIN-GAIARI DOIÑURIK GOZOENAK ABESTEN IGARO ZUAN.


ETA ONELA, IRU EGUN GEROAGO...
JAUNA, EZ DAKIT ZER IXTILLU DARABILGUN, BAIÑA GAUR BAI, AN IZANGO GERALA.
ESAN NIAN BEIN, ETA BERRIRO ESATEN DIAT: ABIL AZKAR!
ETA BOST EGUN GEROAGO...
EZ DAKIT ZER GERTATZEN DAN. BAIÑA GAUR EMEN IZAN BEAR DUTE!
KONTU ONI USAI TXARRA ARTZEN DIOT!
ERREGIN-GAIA ONELA ZAI EDUKITZEA, EZ DA EGOKI.
BAIÑA ZALDIAK "TARTE SORGINDUA" ZAPALTZEN DUANEAN...
AURRERA ZALDITXO, AURRERA!
ZALDIA TA ZALDUNA KONTURATU GABE, AIDEAN BIRAKA ASTEN DIRA!
EGINGO NUKE, EZ DUGULA AURRERA EGITEN!
TA ALA ZAN: BETI TOKI BEREAN BIRAKA ZEBILTZAN.
AL 17


"AURRERA"! NIK DEADAR EGIN ARREN, ALPERRIK. "AURRERA! TA AURRERA" DEADARKA ARI NAIZ, BAIÑA BETI TOKI BEREAN.
BAIÑA... AURRERA! BERRIZ ERE...
NERE LEIOPEAN, BAI DOIÑU GOZOAK!... ZAI-EGOTE ASPERGARRI ONTAN, BAI ATSEGIÑAK DIRALA. BITARTEAN, VISIR AUNDIAREN SEMEAK, EMEN NAUKA BAZTERTUTA!
AIN URBIL GIÑALA, USTE-TA AU DA BERANDUTZEA!
NERE VISIR AUNDIA IZKUTATU. AUTS-LAIÑO ORI BETI BERTAN DAGO... NERE ALABA LOTSATAN UZTEKO ARRISKUA... AUEK DIRA EGUNAK!
SULTAN GOIEN ORI! ZURE ALABAREN SENARGAIA AGERTZEN EZ DAN EZKERO EMEN NATOR. ZURE ALABAREN MAITE-MIÑEZ TXORATUA NAGOLA BA-DAKIZU.
AL 18


EMANGO NIZUKE NERE ALABA... BAIÑA BALDINTZA BAT: BAI AL DUZU JAUREGIRIK NERE ALABAREKIN BIZITZEKO?


JAUREGI BAT BESTERIK EZ?... ZURE ALABAK, ARRI BITXIZ EGINDAGO JAUREGIA MEREZI DU.


ALADIÑO'K KRISAILLUA IGURTZI ZUAN ETA...
ZUREA DA NERE ALABAREN ESKUA TA GAINERAKO GUZTIA


AMA! JANTZI ITZAZU SOIÑEKORIK EDERRENAK. BELDRAMINA ERREGIN-GAIAREKIN EZKONTZEN NAIZ
TXORAKERI TA ZORAKERIRIK EZ, EMEN! AGO IXILLIK! SULTANAREN ERTZAIÑAK ENTZUTEN BA'DIZKITEK IRE ITZAK...
BAIÑA, AMA! EGIA DALA!
EMENTXE DAUKAT, SULTANA EZAGUTZERA ERAMANGO ZAITUAN ELEFANTEA ERE!!
LEKU,... LEKU... SULTANA'REN JAUREGIRA ITZULI BEAR DUT.
ARTU BEAR DUZUN BETA! ERREGIN GAIAREKIN, NI EZKONDUKO NAIZ, ALPERRIK ZATOZ!
BAIÑAN... ORDUAN... EGIA AL DA GUZTIA?... NERE SEMEA ERREGE-GAI?
AL 19-B



SULTAN AINTZAGARRIA, EMEN NERE AMA!
TA ONELA JAZTEN AL DA JOSKIÑAREN ALARGUNA? EZ NAIZ ALPERRIK IBILLI SULTAN IZATEKO AMESETAN!... OBE NUAN, BAI, SOIÑEKOAK EBAKI TA JOSTEN ARI IZAN BA'NINTZ, DIRU GEIAGO IRABAZIKO NUKEAN!
ALADIÑO GORAGARRIA! ORRA NERE ALABA!
NERE JAUREGIA, ARRI BITXIZ BETEA DAGO BAIÑA DANETAN EDERRENA, ZU IZANGO ZERA.
ETA BESTERIK GABE ALADIÑO ETA ERREGINGAIA ELKARREKIN EZKONDU ZIRAN.
GORA EZKONBERRIAK!!!
© Uligui
AL. 19-C


BEGIRA, BELDRAMINA: ZERU-ARRAIRAÑO ZURE BEGIEK IKUSTEN GUZTIA, GUREA DA!
TA EGUALDIA OBEA BA'LITZ GURE BEGIEN IKUSPEGIA, ASKOZ ZABALAGO TA ZORAGARRIAGO IZANGO LITZAKE!! GUREA DA ZORIONA!
EZTAIAK BOST EGUN IRAUN ZUTEN...
BAIÑA SEIGARREN EGUNEAN, GAIZTOAREN LAIÑO BELTZAK ARTU ZUAN ZERU-GAIÑA...
AU DUK AU GALERA! LEIZE-SARRERARIK EZIN DIAT ARKITU... IRUROGEI URTEKO NERE NEKE-LANAK ALPERRIK!...
ZER DALA-TA ISKANBILLA AUEK?
EZ AL DAKIZU EZER?... ALADIÑO JOSKIÑAREN SEMEA, ERREGIN-GAIAREKIN EZKONDU DALA?
JE, JE, JE!... ORAIN KRISAILLU SORGINDUA NORK DAUKAN, BA ZEKIAT... ETA NEREGANATU ARTE, EZ NAUK GELDITUKO!
AL. 20


MUTILLAK! ZUENTZAKO BA-DIAT LANTXO BAT! TXI... TXI... TXI...
EGUZKIAREN ESNAERAN, ALADIÑO'REN JAUREGIA, URREZ ETA ARRI BITXIZ DIRDAIKA AGERI ZAN; BAIÑA ANDIK URBIL, ZUGAITZ BATEN OSTOPEAN, AN ZEGOEN ILLUNPE TA GAIZTAKERIA...
JE, JE, JE!... ALADIÑO ETA BERE LAGUN-TALDEA, EMENDIK IGAROKO DIRA TA EMEN IZANGO DUGU MAUKA EDERRA. DENOK ABERASTEKO.
ESAN DA IZAN!... ANDIK PIXKA BATERA, JAUREGITIK EGUNDOKO LAGUN-TALDEA ATERATZEN ASI ZAN.
KONTUZ! OR DATOZ!


GURE AZPIRA DATOZENEAN... JE, JE, JE !!!
GELDI MUTILLOK! ADAR AUEK OSO AULAK DITUK!
MILLA ESKER LAGUNTZA GATIK. BAIÑA NAIKOA DA: ORAIN EGIZUTE JAI. URIAN IBILLI BEAR DUT. AGUR!
MADARIKATU ARRAIOA! URIRA DOA!
BAKARRIK JOAN DA! ERREZ ARRAPATUKO DUT NERE SARETAN.
JAUNA! GELDI!
AU KASKARREKOA!
JAUNA! SARI MARDULA ARTZEKOTAN GAUDE ORAINDIK.
AI BAI, BAI! NERE BURUA... ARTU, MUTILLOK, ARTU DIRUA!


OI, ALADIÑO PRINTZE JAUNA! AUNDIA DA ZURE ERRUKIA!
JE, JE, JE! ORAINTXE BAI NERE ATZAPARRETAN AIZELA!
GELDI OR! USTU AZKAR DAUKAZUN GUZTIA!
EEE?
AI, ENE!... JAUREGITIK ATERA DUDAN GUZTIA BANATUA DUT BEARTSUERI EMAN DIET. BAIÑA BIAR...
ZER ESATEN DUK?
GERRIAN ZINTZILIK DAKARTZUN KRISAILLUA NAI DUGU.
GAUZA UTSA DA BAIÑA ORI NAI BA'DUZUTE, ARTU BAI, ARTU.
EMEN DUT! NEREA DA KRISAILLUA! UNE ONEN ZAI EGON NAIZ 90 URTEZ
¡?
KALE BAZTER ILLUNEAN ZERBAIT GERTATZEN DA.
JAUNA! ALTXOR AUNDIAK ESPERO GENITUN!
A! BAI, BAI! NERE BURUA!... ARTU, ARTU NEURRI GABE!
AL. 23


AZTIGOI! AZTIGOI! IRTEN ZAITE ZURE EZKUTUTIK!
BI ORDU GEROAGO...
... OI, AZTIGOI! ZERGATIK ETZERA AGERTZEN?... AZKAR!!
ALADIÑO TRAPU ORREK, ZIRIA SARTU DIT. AU, NOSKI, EZ DA BENETAKO KRISAILLU MIRARITSUA. GEZURREZKOA DA. BAIÑA... AGO, AGO! NIK KENDUKO DIAT, BAI!
AZTI TXIRULARI ORI!... SOKA IGOTZAILLEAN GORA JASOKO AL NAUZU NI? ORI LITZAKE JOLAS POLITA.
BAI ORIXE! BAIÑA TXIN-TXIN ASKOREN TRUKE.
EDERKI!... GORA!... GORAGO!...
OR, OR NUN DAGON BENETAKO KRISAILLUA! A, IJITO-KUME GORRIA! NERE SUSMOAK ZUZENAK ITUAN!
AL 24


BIARAMON-GOIZEAN
AGUR NERE AINGER-UTXO!... ZURE ONDORA AZKAR ETORTZEARREN LABURTU EGINGO DUT EIZA.
ZATOZ LENBAILEN. ZU GABE OSO ILLUN EGONGO NAIZ-TA.
JE, JE, JE!... IRE ITZULERA, IK USTE BAIÑO GEI-AGO LUZATUKO DUK.
ZERGATIK UZTE NAU BETI BAKARRIK? ASPERTU EGITEN NAIZ, TXORI BERRITXUREN BAT BA'NEUKA, BERRIKE-TAN EGITEKO...
KRISAILLU BERRIAK, ZAARREN TRUKE!... NORK NAI DITU?
OI, ERREGIN-GAI EDER ORI! KRISAILLU ZAARRIK BAZTARTUTA EZ AL DUZU OR? AREN TRUKE, BERRI-BERRIA EMANGO NIZUKE.
NERE ETXE-AN DENA BERRIA DA. ZOAZ AURR-ERA!
KRISAILLU ORIXKA ZAAR BAT EZ DUZULA, ZIUR AL DAKIZU EZETZ?
EZETZ!
ZURE MAI-TXOAN ERE EZ AL DUZU ORRELAKORIK?


ZAUDE, ZAUDE!... AIPATU DUZUN EZKERO... BA-DU, BAI, ALADIÑO'K KRISAILLU ONDATU BAT... AUXE. BAIÑA...
BEREALAXE TRUKATUKO DIZUT!
BENETAN, ANTZIÑAKOA DA KRISAILLU AU, TA...
ORREN TRUKE, IRU KRISAILLU BERRI ZURETZAT.
BAIÑA BENETAN NAI AL DUZU ZURETZAT? TRUKE ZUZENA IZATEKO...
BOST KRISAILLU BERRI TA GANBELU BAT ZURETZAT.
NIK TXORI BERRITXU BAT NAIAGO NUAN, BA...
TRATUA EGIÑA DAGO! AMAR KRISAILLU, GANBELU BAT, TXORI BERRITXUA'TA TXIRULA SORGINDUA ZURETZAT!
IRABAZI EDERRA EGIN DUT! ALADIÑO ARRI TA ZUR GELDITUKO DA, JAKITEAN.


ZURE MIRABE TA MORROI NAIZ... BAIÑA... ALADIÑO NERE JABEA, NUN DA?
ALDATU EGIN DA KRISAILLUAREN JABEA. ORAIN NERE ESANA BETE BEARKO DUK.
CHAF
MUTIKO AU, LEIZE-ZULOAN UTZI NUAN EZKERO, ASKOREN JABE EGIN DALA, E?! BAIÑA GUZTIA NERE ESKURA ETORRIKO DA ORAIN!
ORRA ALADIÑO'N JAUREGI-A; URIKO GUZTIEN ARRIGARRI DA, AURROK...
ZEIN JAUREGI, IRAKASLE JAUNA?
ARA BERRIZ! ETXE-ZULOAN ASPERTUA NENGON ETA AIDE BERRIAK NAI NITUAN, BAIÑA... AU ERE, EZ DAKIT BA...
AL. 27


AN ZIAK ETXEA, ITXASO TA MENDIEN GAIÑETIK ETA...
BASO BELTZ BATEN BIOTZEAN SARTU TA GELDITU ZAN...
BITARTEAN ALADIÑO'K
GELDI EMEN. JAUREGIRA ITZULI AURRETIK ARRAPATU DUGUN EIZA...
GORA ALADIÑO!
...EIZTARI GUZTION ARTEAN BANATUKO DITUGU.
OI, SULTAN AUNDI TA NERE AITAGIARREBA ZORIONTSU ORI! EIZE ONENA ZURETZAT JASO DUT!
I BAI ARRAPATU AUT EIZEAN! NUN DIRA NERE ALABA, IRE JAUREGIA TA NERI ESKEÑI-ITXURA EGINDAKO ABERASTASUNAK?
BAIÑA... ZER GERTATZEN?...
AL. 28


ZU ETORRI ZIÑANETIK, OSO KONTU OKERRAK DITUGU EMEN... ZU AZTI USTEL ZERA, NOSKI!
NAIKOA ERAMANDUT! EGUZKIA EZKUTATU BAIÑO LEEN AGERTZEN EZ BA'DA NERE ALABA, LEPOA MOZTUKO DIZUT!
ORDUBETE AURRETIK, AALMEN ETA OMEN GUZTIEN JABE NINTZAN... UTSAREN UTSA GUZTIA!... AIZEA BEZELA ETORRI, ETA AIZEA BEZELA JOAN DANA!
BASAMORTU LEGORREAN, LOTAN MURGILTZERA DOA EGUZKIA.
ANDIK URRUTI, BERRIZ, BASO BELTZAREN BIOTZEAN, EGUERDI BETEA ZAN.
ERREGINGAI MAITE! IRIKI EZAZU ATE ORI!... EZTAITARAKO DANA PREST DAGO!!!
ZER EZTAI, GERO?
ZURE TA NERE EZTAIA, NOSKI! JAUREGI OSOA TA ZU IRABAZI ZAITUZTET; ORAIN ZUREKIN EZKONTZEA DA!
AL 29


ZER DIOZU? ZURE TRASTEREN BAT NAIZELA USTE AL DUZU?
OOOO! ETZAZULA ORRELA ARTU, ARREN! AINBESTE URTEAN ZURE ZAI EGON NAIZ.. BAIÑA EZ NAIZ AIN ZAARRA!
ALADIÑO'K, NERE JABE IZATEKO, IRU GAUZA EGIN ZITUAN... ZUK ERE ZERBAIT EGIN EZAZU NI IRABAZTEKO!
NERE KRISAILLUA TA NERE AZTIGOIA, ZURE ALDE DITUZU!
EZ, EZ. AIZTIKERIRIK GABE. ZEU BAKARRIK GAUZA AL ZERA ATETXO AU BOTATZEKO? EZ DA OZTOPO AUNDIA. GAUZA AL ZERA?
BAA...
...OR NOA, BA!!!
AAAI!
VROM
ERREGIN GAITXO MAITEA! ALDATU EZAZU NERE EGITEKOA...
SAIA ZAITE BERRIZ! NAIKO BETA DAUKAGU!
AL 30


ALADIÑO, UNE ARETAN BEREAN, ETZEGON LO ARTZEKO...
EPEA BETE DA!... NERE ALABA ZEGON TOKIAN, BASAMORTU GORRIA BESTERIK EZ DA AGERI. IK ERE EMEN GALDU BEAR DUK!!!
ATOR BORRERO! EGIN ZAK IRE LANA!
UNETXO BAT, JAUNA! BARKA ZAIOZU ALADIÑO'RI
BARKAPENIK ETZEGOK!
ERREGEGAI OSO ONA IZAN DA GUZTIONTZAT... ALADIÑO ILTZEN BA'DA, ERREGINGAIA AURKITZEKO AUKERA GUZTIAK ERE GALDUAK DIRA... BERA BILLATZEKO EMAIOZU ASTI PIXKA BAT!
BERROGEI EGUN ETA BERROGEI GAU DITUK, KENDU IDAKAN NERE ALABA BILLATZEKO. TA EZ IGESIK EGIN! AGON LEKUAN AGOLA, MUNDUAREN AZKENERAIÑO JOANDA ERE, NERE ESKUETARA EKARRIKO AUT!
NERE MAITEA AURKITU... TA NERE ALTXOR GUZTIAK!... AMES BAT BEZELAXE URTU DA GUZTIA! AU NAIGABEA!
AREN AZTARRANIK ERE EZ... NUN ETA, NOLA BILLATU?
AL 31


AGURE MAITAGARRI ORI!... NI EIZERA JOAN NITZANEAN, EMEN GELDITU ZIÑAN... ESANGO AL DIDAZU, ZER GERTATU ZITZAIEN NERE EMAZTE, JAUREGI 'TA ALTXORRERI?
EZ DUT EZER IKUSI, JAUNA. GOIZEAN DANA OR ZEGON. ARRATSALDEAN, EZER EZ.
ETA ZUK, IKUSI AL DUZU NERE KRISAILLUA... GERRITIK ZINTZILIKA ERABILTZEN NUANA? AZTIGOIRIK IKUSI AL DUZU AIDEAN?
EZER ERE EZ, JAUNA!
ERREGE GAI ERRUKARRIA! NAIGABEAK BURUA NAASTU DIO!
ASIERAN BEZELA NAGO! EZ,... OKERRAGO! NEUKAN GUZTIA GALDU DUT, ETA AREN ORDEZ, GALDUTAKO ZORIONAREN MIÑA!
ETA EZ DUT LANGINTZARIK ERE IKASI... NERE BILLAKETA ZOROAN, AZTIKERIA, AMESAK, UTSA! BESTERIK EZ DUT AURKITU.
AL 32


IÑOR EZ! ATE BAKOITZAK, ĢELA UTS BATERA NARAMA... AZTI BELTZA KANPOAN DAN BITARTEAN, EZ DUT BELDURRIK. BAIÑA... ALADIÑO ITZULIKO OTE DA?
ZER DOIÑU DA ORI? NERE SENARRAK JOTZEN ZUANA!!
ENE, BA! AZTI BELTZA BERTAN!!
JO DIZUDAN DOIÑUA, GOZOA AL DA?
EMAKUMEAREN BIOTZA BAI GUTXI EZAGUTZEN DUZULA! BI BIDE DITUZU, NEREAN SARTZEKO: BIGUNKERIZKOA TA GOGORKERIZKOA.
ZU GOGOR-BIDETIK ASIA ZAUDE. EZ ORAIN GOZO-BIDERIK ARTU. OKER ZATOZ ETA BERANDU!
A! BAI?... IKUSIKO DUZU!
ALDE DENOK! IXO, DOÑU TA MUSIKAK. ORAIN INDARRAREN ETA BURNIAREN OTSA IZANGO DA!
PLOF!
AL 33


BITARTEAN, ALADIÑO...
TOKI ONTANTXE... ONDAR GORRI AUETAN JARRI ZIDAN AZTIGDIAK ERRAZTUNA NERE ESKUAN, ETA...
KATRAMILLA!... LEIZE-ZULOKO SARRERA BERRIZ ERE!
CHAF
¿ORATEGIA! ITURRIA! ARRIBITXIZKO ORMAK! URREZKO SAGARRAK!... GUZTIA EMEN DAGO!
BAIÑA... KRISAILLUA EZ DAGO!
BERRIRO ABERATS; BAIÑA NERE MAITERIK GABE, ZERTARAKO DITUT ALTXORRAK? KRISAILLUA, AZTI INDARRA, ZORAMEÑA... DANA URTU EGIN ZAIT.
AL 34


KONTUZ! ERREGIN-GAI ORI!... ORAINGOAN BAI!
PAF!
JA! JA! JA! ERORI DA ATERA!
AZTI BELTZA ATEAK PUSKATZEN ARI DAN BITARTEAN, ALADINO ASMATZEN. MASAILLEAN BEERA, MALKO BAT DARIO...
NAGUSI TA JAUN ORI!... ZURE ALDE ZERBAIT EGIN AL DEZAKET?
35


BESTE ATE BAT ITXITA!...
ETZIÑAN AGERI TA... GELA NAGUSIRA AL-DATU NAIZ.
ZAZPI ATE EZEZIK, ZAZPI ZAZPIKO ERE EZ DIRA NI GELDI-ARAZTEKO GAUZA...
BA-NOALA!'
AI, ENE!... LASTER, ATE ORI BEERA DATOR!... ETXE-GAIÑEKO ZAPAI-RA IGOKO NAIZ.
DRANBA
ANDIK URRUTI... OSO URRUTI...
BIURTU, KRISAILLUA TA EMAZTEA!
NIK EZIN DEZAKET ORI EGIN... KRISAILLU-KO AZTIGOI AUNDIAREN LANA DA ORI, NI ERR-AZTUN BARRUKO AZTI TXIKI BAT NAIZ!
EGIN DEZAKEDANA, AU DA; ZU ARTU TA EMAZTEA ARR-ISKUAN DAGON LEKURA ERA-MAN!!!
©Migui
AL. 86


ARRITZEKOA BENETAN! URRUTITIK, IRTERA ORI EZ NUAN IKUSTEN.
GAUZA ASKO EZ DIRA BEETIK IKUSTEN. ORTARAKO, OSO GORA IGO BEAR DA.
AURRERA BA-DA!!!
AMALAU ATETZAR, IRU BURNI-SARE TA BI ERREZEL LURRERATU DITUT!... JAUREGI ONEK, EZ DU AZKENIK!
AU LARRIA!... IZKUTA LEKU GUZTIAK BUKATU DIRA. AUXE DA AZKENEKO ATEA!
AL 87


JAUN ETA GARAILLE AGER-TUKO NAIZ!
ALADIÑO! ZU EMEN?
NERE MAITE! ZU NOLA UTZI!
NERE SENAR, BIOTZEKOA! KRISAILLUA, AZTI BELTZAK ARR-APATU DU!
PUNBA
EZ DIOT BELDURR-IK... ARTUKO DU BEREA!
USTEGABEKO AGERPENAK, EMAKU-MEAK TXORATZEKO ONAK DIRA!
KRISAILLUA BOTA EGIN DU!!!
UAAAA!!!
ESKURATU DUT!!!
© Chiqui
AL. 38


ERREKITOLIS!... APRIKA'KO PALMONDORIK LUZEENAREN GAÑERA ERORI NAIZ. URTEAK BEAR DITUT EMENDIK JEIZTEN!
AZKEN-ZORIONTSU GUZTIEN ANTZERA, ANDIK AURRERAKOA IGARTZEKOA DA.
AITAGIARREBA LAZTANA! ORRA OR ZURE ALABA TA JAUREGIA OSORIK!
EZ AL DIRA BERRIZ GALDUKO?
ORREN ZIMENDUAK EZ DIRA GEIAGO KOLOKATUKO. KRISAILLUAK INDAR AUNDIAK DITU. BERE LEKUAN GORDEKO DUT.
©Chigui
KRISAILLUA, KUTXA BATEAN GORDEKO DUT...
KUTXA ORI, KATEZ ITXITAKO BESTE KUTXA BATEAN SARTU...
AL. 39


KUTXA ZARRA, IÑORK EZ DAKIAN LEIZE-ZULOAN IZKUTATU...
... ETA NORBAITEK AURKITUKO BA'LU ERE...
... GILTZA ONEKIN BAKARRIK IRIKITZEN DAN ATETZAR BAT...
... ETA AZKENEAN, LANGINTZA BAT AURKITU DET... ZURE SENAR IZANGO NAIZ. ETA GURE ONDORENGOAK ABERASTEKO, EGIÑALAK EGINGO DITUT... GILTZA AU BERRIZ EZ DUT BEAR...
... EZERTARAKO, BIJOA ITXASORA!
ETA GIZALDI TA SEKULA SANTAN, AN GELDITU DA KRISAILLUA KUTXAN, ETA KUTXA, KUTXAZARRAREN GORDERIK DAGONEKO ATEAREN GILTZA. AN DAGO BESTEREN BATEK (ZUK ZERROREK AGIAN), AURKITU DEZAN ARTE... NOIZBAIT ZU IZANGO OTE ZERA KRISAILLU MIRARITSUAREN JABE?
AL 40

# ALADIÑO'REN IZKUTAPENA



Bera baiño amar aldiz aundiago dan aztigoia gordetzen duan krisaillua? Lurreko ondasunak eskuan dituan aztigoia? Baiña **giza-gaietan** esku edo aalmenik ez duan aztigoia? Kontu zaar onek zer adierazten digu? Ta diranak dirala, zer da AZTIGOIA?

Aztigoien ipui zaarrak 1704 ezkero zabaldu ziran sartaldean. Aldi aretan, erri-ordezkari prantzitar bat Sortalde Erdian ibilli ondoren, gure aldera etorri zan. Arek ekarri zuan prantzierara itzulia, liburu bat. Liburu onen izena, berak asmatua, au izan zan: MILLA TA BAT GAU. Ala ere, eztira ipui auek milla; ezta iñungo lurraldeko ames-ipuiak ere.

Sor-lurrik gabeko ele zaarrak dira, beraz. Ala ere, PERSIA'KOAK bezela saltzen dituzte. Gaur IRAN izenez ezagutzen dugun lurraldekotzat saldu dizkigute. Aldi artako giroari ta Prantzi-ko Errege-gaiari gogozkoen zitzaizkien eran egokituak ditugu. Ibiltari amesgille onek, oituren gordelari ere, agertu nai luke.

1720'an GALLAND (onela zuan izena ipui-idazle onek) azaldu zan. Bukatutzat saldu zuan berak liburua, baiña artean etzegoan bukatua. Ordutik asi zan Errege--etxetako aundizkien artean zabaltzen. Andik etorri ziran geroko erriaren AZTIGOIEN kontuak. Arabitarrak «djin» izenez ezagutzen dituzte. Auek, gauza guztietan eskutaturik bizi dira:

Egurrean bezela, galtzairuan, aizetan... Aztizuri auen ezagunena, krisailluarena izan da; ta bere sor-lekua PERSIA edo IRAN izan baitzan, angotzat jotzen da kontu au. Eun urtetik gora geroago, lur-miatzaille ingeles batek, (izena Sir Richard Burton zuan), ipui-ibaiaren iturritaraiñoko bidea artu uzan, ordurarte ezagutzen etxiran gau berriak erantsiaz ipui zaarrari. Ta arek Aladiño atzerriko egin zuan. Aladiño etzala Persia'ko seme; Galland'ek (nundik eztakigu) ateratako ames-ipuia zala, alegia. Alaxe Aladiño eta alaxe aren arkontzi edo krisaillu, erri ta guztia. Ordurako, lur-idazti ta mapak

zabaldu baitziran; etzan naikoa «oso urrutiko lurra» esatea. Gertaleku au nunbaiten lotzeko, Galland'ek ames-ipui au, asmatutako, Txina batean lekutu zuan. Txina arek etzuan ez edestirik, ez lurrik. Ango bizilagunak etziran txinatarrak; ez persiatarrak, ez arabitarrak.

Oitura ta giza-emakume naastu batzuk baizik. Oitura ta lurralde bitxi bateko bizilagunak, noski.

Nundik datorkigu, ba, Aladiño?

Amaika itzulpen eta aldaketa zear, bi gauza bakarrik gelditu dira denetan agiri ta erabakiak: ames-jabearen izena: ALADIÑO; eta berau, **umezurtza** zala. Ta bi **oi**-etatik datorkio kontu oni, bere «ala bearra». Arabeizkuntzan, ez da «Umezurtz» itzultzen. An, «Ala'ren Seme» edo-ta «Aren Seme» deitzen zaio. Gure gaindiko indar, naiz jainkotxiki ta eragille, nunbait.

Era oneta, Aladiño, bizi-maixu gerta zaigu. Bizibiderik gabe jaiotako gizon au, **gizon gordin** dugu. (Antziñatean, gurasoek eman bear izaten zieten seme-alaberi beren izate ta bizibideren bat. Aladiño «Umezurtz» izatea, «Bizibiderik gabe» koa izatea besterik ez da. Baiña «Aren Seme» dan aldetik, aalmen izkutu ta miraritzuen jabe da. (Ontan AZTIGOIAK laguntzen dio). Besterik gabe, gauzen sortzaille ta utsetik amaika egiteren mamitzaille gertatuko zaigu.

Gure egokiera onetan, gatz eta piper pixka bat erantsi nai izan diogu.

Gaurko irakurlea kontuan artu bear genduan. Or dabil gure Aladiño dilindan: langintzarik iritxiko?... aztikeri-aizea nagusituko?... Laiñope ortan, muiña ta mamia, bere ortan utzi ditugula uste dugu. Ortik gora... ipui miraritsu, illun, gurasorik gabeko onek, sasikumeren bat eskeintzen al digu?

Auskalo!!!

CARLOS ALBERTO CORNEJO

ETXANIZ'TAR NEMESIO, Euskeratzaille.



Brujo: Aztibeltz.

Genio: Aztigoi.

LABAYRU-IKASTEGIA
BIBLIOTECA [illegible]
Sarr 27.684/95
Gaia.
Tokia.



ERRIBIDE
ZABALKUNDEA

150 pta.